

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko azaroaren 22a / 518. zenbakia



Amodio geziak

Amodiozko gutunen
lehiaketako oinarriak
kaleratu ditu Jardunek.
Aurten, poltsikoko
telefono bidezko maitasun
mezuen lehiaketa ere
egingo dute

GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako



AGIRRE MARGOAK

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

ARISTEGI-TOLA ITURGINTZA



Bolu 26
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak

ELKAR ELEKTRAGINTZA

Koldo Elizalde 8
943 76 00 00

- Mota guztiétako instalazioak



GUREN INTURAK

Irala kalea z/g
943 76 33 01
F 943 76 33 01

- Orotariko pintaketa lanak

Iturkintz Berri S.L.

Amillaga 1
943 76 28 04
F 943 76 36 58

- Bainurako altzariak
- Era guztiétako kalefakzio instalakuntzak

J.M. IZAGIRRE Igeltseritza

Loidi baseria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

Antonio Bouzas

Zurradero 8, 1-A
943 76 06 12
689 805 802

- Margoak eta dekorazioa



MATXIATEGI S.L. ELEKTRAGINTZA

Zurradero 8
943 76 19 94

- Material eta etxeko tresna elektrikoak
- Instalazioak
- Hari musikala

Andres margoak

Zubiaurre 19
Ozaeta 9
669 887 814
669 887 815

- Pintura dekoratiboa

BERGARA Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria



fontaneria m. arrañaga, s.l.

Matxiategi 16
943 76 29 97
F 943 76 04 22

- Diba: bainuaren diseinu osoa
- Gas instalazioa
- Berogailuak

UGARTE ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atek



UR kristaldegia

Martoko 1-3
943 76 54 68

- Ispiluak
- Beirateriak
- Biselatuak
- Plastikokoak

El izarra elektrizitatea

Zubieta 10
943 76 54 10
943 76 19 99
943 76 10 60

- Orotariko instalazio elektrikoak

ATREBENTZIA EZ PADA / Amodiozko gutunik idazten dozu? Orokorrian idazten diela uste dozu?



EZOZI AGIRRE
45 urte




MIREIA MUÑOZ
21 urte




ALBERTO ORMAZABAL
43 urte



ENEIDA ARANTZABAL
25 urte



MIGUEL ANGEL VAZQUEZ
24 urte



JOSE SERRANO
53 urte

Sekula ez. Preinarik ez dot eduki. Eta jaso be ez dot egin. Nik uste dot egongo dala jendia amodiozko gutunak idazten dittuana. Penia izango litzake, gaiñera, hori galtzia.

Eskolan idatzi izan dogu baten bat, baina hortik kanpo ez dot idatzi amodiozko gutunik. Jaso be ez dittut egin. Orain sakelako telefonoa erabiltzen da eta horrekin mezuak bialtzen die.


Lehenago idazten nittuan, gaztiagoa nitzanian, baina gaur egun ez. Gaiñera ez dot uste idazten dienik, Correos-en egitten dot lan, eta gutun gehienak ofizialak izaten die.

Idatzi izan dot amodiozko kartarik. Jaso behin egin neban bat. Nik uste dot ondiokan be idazten diela, igoal ez lehengo moduan, baina idatzi bai. Beste gauza bat da gero aitortzen dan.

Nik ez dot behin be amodiozko kartarik idtzi, baina jaso bai. Gaur egun ez dot uste aski idazten dienik, jende gaztiak sakelako telefonoekin moldatzen da, mezuak bialduta.

Soldadutzan nenguanian andregaixai idazten notzan, eta berak neri, baina gaur egun ez. Emaztea kanpuan egongo balitz igoal idatziko notzake, baina elkarrekin egonda...

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK UTZIKERIAZ KEXU Zubiaurre auzoko emakumezko bat etorri zen pasa den egunean erredakziora. Kexu baten berri ematera etorri zen, gainera. Beste gauza batzuk aipatu zituen arren, bereziki Zubiaurreko 9. zenbakian dagoen iturriaren egoeraz kexatu zen. Haren esanetan iturria zein haren ingurua oso zikin daude, eta auzotarrek izan ezik, ez du beste inork garbitzen./M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5

KIROLAK / 10

KULTURA / 12

Agorrosingo igerilekuak

Udalak datorren astean erabakiko du Agorrosingo kanpoko igerileku txikia estaltzen duen.

Senior eskubaloia

Seniorrak lehen garaipena lortu zuen Ormaiztegin eta zapatuan Sestao hartuko du Labegaraletan.

Piano emanaldiak

Zapatuan eta domekan, piano emanaldiak egongo dira udaltxeko areto nagusian, 19:30ean.

ASTEKO DATUA

24

TXAPA IRRATIAREN EMISIO ORDUAK

Denboraldi berrirako programazioa aurkeztuko du Txapak asteburuan. Hogei saio izango dira eta berrikuntza nagusietako bat emisioa izango da, 24 orduz emitituko dute-eta.

BESTEKE SANA

“ Lehendakariaren proposamenari hiru arrazoiengatik apoiatzen dudala esango dizut:

ausarta, demokratikoa eta zintzoa delako, hain zuzen ere; horrela ezin dugula jarraitu guztiok pentsatzen dugu, eta bazen garaia norbaitek ausardiaz proposatzeko.
EUSEBIO LARRAÑAGA /
Deia/02-11-18

“ Ibarretxeren planak badu akatsen bat: oinarria, hain zuzen. Helburua ez delako lapurtutako

subiranotasuna berreskuratzea, gaur egunean bahituta duenarekin akordiora iristea, baizik. Hitzaldi sutuak besterik ez ditu egiten euskaldunok nahi duguna izango garela esaten duenean.
MARTIN GARITANO / Kazetaria
Gara/02-11-20

BERAIEK DIÑOE / Jose Angel Mikeo



Arrazoa daukazu baina kartzelara biozu

Txikitatik entzun dudana esaera da izenburuan jarri dudana. Txikitatik entzun eta inguruan aplikatzen ikusi dudana.

Egungo adierazpenak entzun eta irakurritz, ezin dut ulertu nola norberaren arrazoiak, gutxiago arrazonenak, ez duela zertan inongo oinarri objektiborik eduki behar. Nahikoa da edozein politikok, epailek, zein sasifamosok telebistan zerbait esatea, haren gainean arrazoi eta jarrera sakonenak eraikitzeke.

Azken hilabeteetan bi gai politiko nagusi ari dira Euskal Herria astintzen: Batasunaren ilegalizazioa eta Lehendakariaren proposamena.

Lehena bultzatzeko arrazoa epaile batek Batasuna ETArekin bat dela daukan uste osoa izan da. Frogarik ez. Pertsona afiliatu akusaturik ez.

Uste osoa da arrazoa eta, horregatik, ustea aldarrikatu ondoren, prozesiorako partaide guztiak jakulatoria errepikatu

dute. Amen Jesus eta mugitzen dena kartzelara!

Bigarren kasuan, Lehendakariaren proposamena irakurri, eztabaidatu... aurretik, arrazonamendurako bidea itxi nahi dute betikoek: norberaren posizio politikoak baldintzatzen diren neurrian bestearen arrazoiak ez daude zertan entzun.

Jarrera horren eredurik eredu-garriena Mugica Herzog, "herritarren babesleak" eman zuen aste honetan. Lehendakariaren proposamena ezin dela inolaz onartu adierazi zuen lehenik.

Apur bat zehazteko galdetu ziotenean, puntu bat bera ere ezin dela onartu esan zuen eta, azkenik, zein ikuspuntutatik ezin den onartu galdetzean "ikuspuntu batetik ere ez" esan zuen. "Arrazonamenduz" beteriko hitzotan ikus daiteke jarrera politiko batzuen oinarria.

Baina, guzti honetan zerak kezkatzen nau: euskal "arrazoiak" beste edozeinek beste baliota, zergatik beti alde bat doa beti kartzelara?

“Euskal 'arrazoiak' beste edozeinek beste balio badu, zergatik beti alde bat doa kartzelara?”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 22**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
- ZAPATUA, 23**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- DOMEKA, 24**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 25**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- MARTITZENA, 26**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 27**
PUY, Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- EGUENA, 28**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Anglozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emalleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRIAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--------------------------------|--------------------------------|
| San Pedro | Labegarieta |
| Domekak: | Domekak: 11:00. |
| 09:30, 12:30. | San Lorenzo |
| Zapatuak eta lanegunak: 19:00. | Zapatuak: 20:00. |
| Sierbak | Angiozar |
| Lanegunak: 19:15. | Domekak: |
| Zapatuak: 19:00. | 11:30. |
| Domekak: 11:30, 13:00. | Moja |
| Osintxu | Zaharrak |
| Domekak: 12:30. | Lanegunak: 9:00. |
| Zapatuak: 19:00. | Zapatuak: 11:00. |
| Elosu | Mizpirualde |
| Domekak: 10:30. | Lanegunak: 11:45. |
| Ubera | Zapatuak: 17:30. |
| Domekak: | Antzuola |
| 10:30. | Domekak: |
| San Juan | 09:00, 11:30. |
| Domekak: 11:00. | Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Elorregi | Uzarraga |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 10:00. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1944AN JAIOTAKOAK
1944an jaiotako enafaria azaroaren 30ean Azpeitxi jaietxean, 21:00etan. Aurretik meza izango da, San Pedron, 19:00etan. Izenematea 943 76 13 61 (Mari Karmen Garitano) edo 943 76 23 70 (Sanchez ile apaindegia) telefonoetan.

1957AN JAIOTAKOAK
1957an jaiotako enafaria azaroaren 30ean Txuringo jaietxean. Izenematea Intxorta tabernan (10 euroko depositua).

1937AN JAIOTAKOAK
1937an jaiotako enafaria abenduaren 1ean Tartufo jaietxean. Izenematea Kortazarren (12 euroko depositua).

1977AN JAIOTAKOAK
1977an jaiotako enafaria abenduaren 14an Etxagin. Izena emateko epea azaroaren 30era arte zabalik Etxagin bertan (bost euroko depositua).

ALARGUNEN BAZKARIA
Alargunen Elkarteko urteko bazkaria izango da abenduaren 8an. Izenematea Egoitzan bertan.

IPINTZA INSTITUTUA
LOGSE Batxilergoko irakasgaiak gainditu barik dituzten eta matrikulatuta ez egon arren titulazioa lortu nahi duten ikasleek matrikula librea egin dezakete. Matrikula egiteko epea zabalik dago hilaren 29ra arte. Argibideak Ipintza institutuan, 943 76 31 42 telefonoan. Bestalde, Euskal Herriko Unibertsitateak bere eskaintza zein den argitze ko orientazio berbaldia egingo du aurten Batxilergoko ikasketak bukatuko dituzten ikasleendako. Berbaldia Arrasateko Amaia Udal Antzokian izango da, astelehenean, hilaren 25ean, 18:30ean.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildiko ondegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabalaga jaietxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Udaletzeko pinturak berritzeko lanak, abian

Udalak Fernando Diaz Peral zaharbertzizaileari adjudikatu zion Udaletzeko baliozko margo eta elementuen berreskuratzea, 19 milioi pezeta inguruko aurrekontuarekin. Besteak beste, Simon Arrietak San Martinen omenez egindako pintura berri-tu zuten orain dela 10 urte.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Maikaria"



Mahaia bete jende.
- Etxe artian maikaria juntatzen die egunero.
Mahaia bete janari ere bai.
- Jesus, au da maikaria jarri dozuna iru lagunendako.

ASTEKO FILMAK

'800 BALAS'

ZUZENDARIA: ALEX DE LA IGLESIA. AKTO-REAK: SANCHO GRACIA, CARMEN MAURA.

HARIA. Almeriako basamortuan ez dute western-ik egiten dagoeneko. Julian-ek, ordea, han jarraitzen du, eta baztertutako beste pertsona asko dauzka alboan. Bizimodua ateratzeko, turistendako ikuskizunak egiten dituzte.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'LUGARES COMUNES'

ZUZENDARIA: ADOLFO ARISTARAIN. AKTO-REAK: FEDERICO LUPPI, MERCEDES SAMPIETRO.

HARIA. Fernando-k 60 urte egin berri ditu. Pedagogia irakaslea da unibertsitatean, eta bizi osoa Liliana-rekin ezkondu da. Buenos Airesen bizi dira, eta ezin dira bizi bata bestea barik. Gauzak erabat aldatuko dira Fernando-k erretiratzeko agindua jaso eta gero...

TOKIA ETA ORDUA. Zinekluba. Eguenean, azaroaren 28an, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



SIMON ARRIETA 2
BERGARA

- Oilasko erreak burrunzti erara
- Entsaladak
- Plater konbinatuak
- Ordu zoriontsua: Astelehenetik egunera, 19:30etik 20:30era, pintxo bakoitzarekin 0.80 eurorainoko edaria doan
- Terraza itxia, berogailuarekin
- Jantoki eroso
- Lekua alde aurretik hartzeko: 943 76 71 19

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoalde en-
erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak
943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

HIRIGINTZA/ Udalak jasotako azterketaren arabera, igerileku txikia estaltzeak 222.374 euro inguru balioko luke


Datorren astean erabakiko du Udalak kanpoko igerileku txikia estaliko duen

EDU MENDIBIL

Udalak jasotako azterketaren arabera, kanpoko igerileku txikia estaltzeak 222.374 euro inguruko aurrekontua izango luke (37 milioi pezeta). Udalak datorren astean erabakiko du Agorrosingo kirolgunea berria egin bitartean igerilekua estaltzen duen edo ez.

Agorrosingo kirolgunea egiteko lanek irauten duten bitartean kanpoko igerileku txikia estaltzeko proposamena egin zion Bergara Igeri Elkartek Udalari. Kanpoko igerileku txikiak barrukoaren antzeko neurriak ditu, eta sakontasun txikiagoa izan arren (1,20 eta 0,80 metro bitartean), igeri egiteko baldintzak betetzen ditu, Igeri Elkarteko ordezkariaren esanetan. Udalak igerilekua estaltzeko aukera aztertzeke agindu zion enpresa bati, eta aurreko astean jaso zuten lan horren emaitza: aurrefabrikatutako aldagelak eta igerilekua estaltzeko egitura metalikoa eta toldoa jartzeak, BEZa barne, 222.374 euro inguru balioko luke (37 milioi pezeta). Kopuru horri mantentze-lan gastuak gehitu behar zaizkio, urteko 120.202 euro inguru (20 milioi pezeta), hain zuzen ere.

Udaleko iturrien arabera, proiektu horren bideragarritasuna eta Osasun Sailak baimendu lukeen ondo aztertu nahi dute. Victoriano Gallastegi alka-



AITOR URIZAR

Kanpoko igerileku txikia estaltzeko eta aurrefabrikatutako aldagelak jartzeko aukera aztertzen ari da Udala.

Igeri Elkartek kanpoko igerileku txikia estaltzeko proposamena egin zion Udalari

Aldagelak jartzeak eta igerilekua estaltzeak 222.374 euro inguru balioko du

Alkatearen arabera, kirolgunea egiteko lanak urte hasieran adjudikatuko dituzte

tearen esanetan, "Osakidetzaren oniritzia ezinbestekoa da proiektuarekin aurrera egiteko, baina gai horren inguruan erabakia lehenbailehen hartu nahi dugu. Alde batetik, inbertsio handia eskatzen duen proiektua da, baina herritarren premiei erantzunik onena eman nahi diegu, denbora luzean egongo garelako igerileku barik. Hausnarketa sakona eskatzen duen gaia da, eta igerilekuak itxi zituztenetik hona horrekin bueltaka gabiltza. Datorren astean, behin betiko erabakia hartuko dugu".

KIROLGUNE BERRIA, 2003AN ABIAN

Udalak irail bukaeran itxi zituen igerilekuak, eta ordutik hona Kirol Zerbitzuko bazkideek Arrasate, Oñati edo Aretxabaletako instalazioak erabiltzeko aukera izan dute. Bestalde, dirua jasotzea nahiago izan zuten bazkideei kuotaren %25 bueltatu zitzaizen.

Bien bitartean, oraindik ez dituzte hasi Agorrosingo kirolgune berriko lanak. Gallastegi alkateak esandakoaren arabera, "urtarrilean edo otsailean lanak adjudikatzeke asmoa daukagu, eta, era berean, herritarrei proiektua ondo azaltzeko erakusketa antolatuko dugu". Bergarako Udalak Alvaro Pérez de Amezaga eta Jorge Muntanyola arkitektoen proiektua aukeratu zuen uda aurretik. Kirolgune berriko aurrekontua 10.217.205 euro ingurukoa da.

Eraiki zuteneko margoak azaldu dira Santa Marinan

MONIKA BELASTEGI

Santa Marina parrokiari XVI. mendearen bigarren erdiari dagozkion margoak agertu dira, sabaian. Eliza berritzeko lanak egiten ari zirela aurkitu zituzten. Horiek berreskuratzeko aurrekontua eskatu dute, eta oraingoz ez dute eliza berritzeko lanetan eragingo.

Erdiko nabeko sabaian zeuden pitzadurak konpontzen ari zirela azaldu ziren margoak, urriari. Hori horrela, eta azaldutako margo arrastoak zer ziren jakin eta garrantziaz jabetzeko, Restauración Siglo XXI enpresako Eusebio Corcuera zaharberritzaileak hainbat lagin egin ditu.

Eusebio Corcuera azaldu duenez, hainbat lagin egin ditu erdiko nabean, eta koloreanitzeko irudiak aurkitu ditu. Haren esanetan, *putiak* (aingeru buruak bi hegalekin) eta landareak adierazten dute margoak: "dena dela, laginak txikiak dira, eta *putiak*

argi ikusten diren neurrian, landareena oraindik ez dugu horren garbi". Koloreari dagokionez, bestak beste, okrea, zuria, beltza eta gorria agertzen dira.


ELIZA ERAIKI ZUTENEKOAK

Corcuera zaharberritzaileak gehitu duenez, margo horiek apaingarriak dira, eta, seguruenik, eliza eraiki zuten garaikoak, XVI. mendearen bigarren erdikoak, hain zuzen ere. Dena dela, urteek aurrera egin ahala elizan egin dituzten konponketa lanak direla-eta, zentimetro bateko sakoneran zeuden.

Erdiko nabeaz gain, alboetako bi nabeetan ere agertu dira margo gehiago. Han ere laginak egin dituzte: eskuinaldeko nabean zuri-beltzeko margoak azaldu dira, eta ezkerreko nabean, berriz, koloreanitzekoak.

TESTIGANTZA HISTORIKOA

Margoen garrantziari dagokionez, Corcuera esan du testigantza historiko garrantzitsua dire-



ARTXIBOA


Margoak hiru nabeetan agertu diren arren, oraingoz erdiko nabean azaldutakoak dira ederrenak.

la aurkitutako margoak, "egin ziren garaiko gustua adierazten dutelako, besteak beste". Horrez gainera, artistikoki "politak eta

maila oneko" lanak direla adierazi du.

Oraingoz, aurkikuntzak ez du eliza berritzeko lanetan eragin-

go, Xabier Azkoitia Santa Marinarako parrokoaren esanetan, eta margoak berreskuratzeko aurrekontuaren zain daudela gehitu du.



ARTXIBOA

Elkarrizketak, magazinak, musika... Askotariko saioak entzun ahal izango dira Txapako programazio berrian.

IRRATIA/ Asteburuan egingo duten Txapa Jaian aurkeztuko dute programazio berria

Txapak hogeit hamar irratsaioekin hasiko du denboraldi berria

MONIKA BELASTEGI

Txapa Irratiak programazio berria aurkeztuko du asteburuan. Denboraldi berriari hogeit hamar irratsaioekin eta hainbat berritasun garrantzitsuekin ekingo dio. Besteak beste, astelehenetik domekara eta hogeita lau orduz emitituko du. Ohi bezala, 97.25ean.

Txapako kideek azaldu bezala, berritasun nagusietako bat parte hartzean datza: "Saioak biderkatu egin dira, eta orain, hogeit hamar irratsaioeko programazioa daukagu. Jende gazte berri asko sartu da irratiari, eta aurrerantzean ere halaxe izatea nahiko genuke. Ateak zabalik daude, eta intere-

sa duen edonor hurbil daiteke zapatuetan egiten ditugun batzarretara". Bestalde, "orain arte ez bezala, emakumezkoak ere hasi dira irratsaioak egiten", eta hori ere nabarmendu nahi izan dute irrati libreko kideek.

Irratiak "jauzi kualitatibo nabarmena" egin duela ere adierazi dute: "Batetik, hogeita lau orduz emitituko dugulako, eta, bestetik, Bergara osoan entzuten delako, estereoa". Horretarako, inbertsio garrantzitsua egin dute eta teknologia aurreratuagoa jarri dute Txapa Irratian.

WEBGUNE PROPIOA

Interneten ere aurkitu ahal izango dugu aurrerantzean Txapa Irratia. Webgunea estreinatu

dute, eta han, irratiaren historia, asmoak, loturak eta beste hainbat gauza aurki daitezke. Helbidea honakoa da: <http://es.geocities.com/txapairratia>.

AURKEZPEN JAIA

Programazio berriari askotariko saioak entzuteko aukera egongo da: musika, tertuliak, albisteak, elkarrizketak... Eta hori guztia aurkezteko Txapa Jaia antolatuko dute asteburuan. Gaur, egubakoitza, saioen berri emango dute, 22:00etan, gaztetxean, eta, horren ondoren, bideo maratona izango da. Bihar, komunikabideen gaia jorrazteko tertulia izango da, 17:00etan; eta 22:30ean, kontzertua: Fly Shit, ... eta Dog Bite taldeek egingo dute emanaldia.

Internet ezagutzeko KZGunea zabalik dago gaurtik aurrera

MONIKA BELASTEGI

Joan den astean aurreratzen genuen bezala, gaur, egubakoitza, hasi da martxan KZGunea. Herritarren artean Internet ezagutzera emateko eta erabilera sustatzeko helburua duen doako zentroa da.

KZGunea Irizar jauregiaren bigarren solairuan dago, eta bi gune bereizi ditu: batean 12 ordenagailu daude eta formazioa zuzenduta egongo da. Ikastaroak emateko gunea izango da; bestean zortzi ordenagailu daude eta erabilera librea izango du. Guneen ardura bi tutorek izango dute.

Ikastaroak dagokienez, ordenagailua eta Internet ezagutzeko oinarrizko eskolak emango dituzte. Sei orduko iraupena dute, eta gehiago sakontzeko beste 16 ordutara ere luza daitezke. Horrez gain, beste ikastaro zehatzago batzuk ere badaude: egunkaria sarean zelan irakurri edo Outlook ikasteko, esaterako. Urtarriera arteko ikastaroak zehaztuta daude, eta www.kzgunea.net helbidean kontsulta daitezke. Izena emateko gunetik pasatu behar da. Bestalde, gune libreari dago-


kionez, hor ere izena eman behar da erabili ahal izateko, eta izena emanez gero, nor bere helbide elektronikoa edukitzeko aukera dago. Erabilera libreakoa den arren, debekatuta egongo da zenbait eduki dituzten orrietara sartzea; besteak beste, ageriko eduki sexuala dutenak eta arrazakeriazko edukia dutenak.

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA

Astelehenetik egubakoitzera egongo da zabalik, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Hala ere, herritarren eskariaren arabera ordutegia moldatu egin daitekeela aurreratu dute Udaleko arduradunek.


Jaurilaritzak abian jarritako Euskadi Informazio Gizartearen Planaren barruan dago KZGuneen ekimena. Helburua da Interneten ezagutza eta erabilera sustatzea. Helburu horrekin bat egin du Bergarako Udalak, eta, besteak beste, gunea jartzeko gela eta altzariak egokitu ditu.

Batez ere, hiru multzori zuzenduta dago KZGunea: etxeokandreei, 65 urtetik gorakoei eta iraupen luzeko langabeei. Dena dela, 16 urtetik gorakoek ere erabili dezakete KZGunea.



MONIKA BELASTEGI

Udal arduradunek martitzenean eman zuten KZGunearen berri prentsaurrekoan.



Bide-hezkuntza ikastaroa

Umeei zuzendutako Bide-hezkuntza ikastaroa egiten ari da Barne Saila egunotan Udal Pilotalekuan. Astelehenean hasi ziren, eta hilaren 27ra arte herriko ikastetxeetako neska-mutikoei oinezkoek eta gidariak hiri barruan errespetatu beharrekoak erakutsiko dizkiete ertzainek.

Ikastaroak bi atal ditu, teorikoa eta praktikoa. Lehenengoan ikasten dutena kar txikitxoetan jartzen dute praktikan neska-mutikoei. Irudian, Mariaren Lagundia Ikastetxeko ikasleak.

LABUR

Udalbiltzaren plaka lapurtu dute EHNA tramitatzeko ireki duten bulegoan

Udalbiltzak Kruz Gallastegi kalean EHNA tramitatzeko zabaldu duen bulegoaren kanpoko aldeko plaka lapurtu zuten ezezagun batzuek joan den asteburuan.

Bulegoko arduradunen esanetan, "indar espainolistek nahi ez badute ere", euren bulegoan jarraituko dute, "hartutako konpromisoa betetzen".

Bulegoaren ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara eta zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara.

On Serafin Esnaolaren aldeko meza izango da etzi, domekan, San Pedro elizan, 12:30ean

On Serafin Esnaola zenaren aldeko hileta meza izango da etzi, domekan, San Pedro elizan, 12:30ean.

Meza San Antonioko auzotarrek antolatu dute. Auzotarren esanetan, On Serafinek San Antonion emandako urteetan egingandakolan guztia eskertu nahi diote.

Salgai daude 'Oliver' musikala Euskaldunan ikusteko sarrerak

MONIKA BELASTEGI

Bergarako Orfeoia Bilboko Euskalduna jauregian egingo du 'Oliver' musikala. Lau egunean egingo ditu emanaldiak: urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean. Sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko.

'Oliver' musikala Bergarako Orfeoia ekoizpena da, eta 1999an estreinatu zuten, Bergaran, Orfeoia 75. urteurreneko ospakizun ekitaldien barruan. Hiru urteren ondoren, bigarren aldiz egin


go dute emanaldia, Bilboko euskalduna jauregian, hain zuzen.

Emanaldia Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Departamentuak Gabonetarako antolatzen duen *Gabonak* egitarauaren barruan dago. Joan den astean, hain justu, aurkeztu zuen egitaraua Aldundiak, eta prentsurrekoan David Azurtza Bergarako Orfeoiko zuzendaria eta musikalean parte hartuko duten bi ume ere izan ziren: Aritz Oteiza (*Oliver Twist*) eta Gorka Maiztegi (*Tunante*).

Oliver musikala lau egunean

ikusteko aukera egongo da: urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean. Eta sarrerak ere salgai daude dagoeneko. Sarrerak eskuratzeko 944 31 03 10 dei daiteke, edo BBKn ere eskura daitezke.

Oliver musikala Charles Dickens-en *Oliver Twist* eleberrian oinarrituta dago, eta musika eta libretoa Lionel Bart-enak dira. Bestalde, euskarazko moldaketa Miguel Moñuxek, Pello Txintxurretak eta Margaretta Allgrem-ek egin dute, eta nazioarteko errepertorioan euskaraz moldatu den lehen musikala da.



AITOR URIZAR

Ehun eta berrogei lagun inguru ari da Yoga ikastaroetan.

Yoga egiteko lokal berria egokitu dute Erregetxo plazan

MONIKA BELASTEGI

Yogako ikasleek egoitza estreinatu zuten joan den astean. Orain arte Irizar jauregian egon diren arren, lokal hura utzi beharra izan dute, han KZGunea jarri behar zutelako. Hori horrela, lokal berria egokitu die Udalak Erregetxo plazan duen lokalean. Egoitza berria konpondu eta yogarako egokitzeko gastua osoko bil-

kurak ere onartu zuen astelehenan, alderdi guztien oniritziarekin. Besteak beste, isolatzailea eta moketa jarri dituzte lurrean, gela margotu egin dute eta komunak ere egokitu egin dituzte. Lanen aurrekontua 3.250 euro ingurukoa izan da.

Yogako eskoletan 140 lagun inguru ari dira, eta lehen ikastaroak urtarrilaren erdialdera arte iraungo du.



Mobilizazioak eguaztenean

Euskal Herria jasaten ari den erasoaldi orokorraren baitan egin zituzten mobilizazioak, Demokrazia Euskal Herriarentzat eta Erasorik ez lelopean.

Goizean, Miguel Altuna (irudian) eta Ipintza institutuetako hainbat ikasle elkarretaratzeak egin zituzten ikastetxeen aurrean. Horrez gain, LABek ibar osora deitutako auto-karabana ere igarozten heretik, eta 19:30ean, kale agerraldia egin zuten hainbat herritarrek, San Martin plazatik abiatuta.

Hainbat lapurreta izan dira Ibargarain eta inguruko kaleetan

MONIKA BELASTEGI

Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren esanetan, Ibargarain hiribidean eta inguruko beste bost kaleetako zazpi etxetan lapurreta egin dute eta beste hirutan lapurtzen saiatu dira abuztutik hona. Azken lapurretak domekan izan ziren.

Ertzaintzaren esanetan, kasu gehienetan atetik sartu dira lapurrak etxeetara, horretarako atea palankaz jasota eta indarra erabilita. Lapurrek auzunea oso ondo ezagutzen dutela ere adierazi dute iturri berek, eta etxebizitzak hutsik noiz dauden ere badakitelatela.

Bestalde, pertsona bakarra izan beharrean talde baten lana dela uste dute, eta ikerketa zabalik dagoela ere adierazi dute. Segurtasun neurri gisa hainbat gomendio eman dituzte: atariko atea ezezagunei ez zabaltzea, atea giltzaz ixtea, eta atarian ezezagunik ikusiz gero, 112ra deitzea.

LABUR

Gabonetako argiak direla-eta, herritarrek erraztasunak ematea eskatu du Udalak

Aurreko urteetan egin izan duen bezala, Gabonetan argi apaingarriak jarriko ditu Udalak herriko hainbat kaleetan. Argioak abendu erdialdera hasiko dira jartzen, eta urtarrilaren 7ra arte egongo dira jarrita. Hori dela eta, Bergarako Udalak zuzenean eragiten dien herritarrei eskatu die erraztasunak eman ditzatela, eta sor ditzaketan eragozpenak barka ditzatela.

Gabonetako argiak honako kaleetan jarriko dituzte: San Martin plazan, Bidekurutzeta kalean, Espoioian, San Pedro kalean, Artekalean, Arruriaga kalean, Fraiskozuri plazan eta herriko sarretan.

Horrez guztiaz gain, auzoak ere apainduko dituzte: Osintxu, Elorregi, Ubera eta Elosu auzoak, hain justu ere.

Alizia Stürtzek berbaldia egingo du datorren egunean, kultura etxean, 19:30ean

Alizia Stürtze historialariak berbaldia egingo du datorren egunean, hilaren 28an, Errotalde kultura etxean, 19:30ean. *Euskal emakumea eta sorginkeria historian zehar* gaia landuko du historialariak. Emanaldia Jardun Euskara Elkarteak antolatu du, eta sarre-ra doan izango da.

Dixula
BOKATAK DAUZKAGU
Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95

ezpeleta
Ostalaritzarako ehungintza
Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak
San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Ganbara
TABERNA
Heure erara ibiltzeko!
Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75


IRRINTZI
kafetegia
Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

ile apaindegia
edertze gela
disdira
Masterreka, 7. BERGARA
Tf. 943 76 00 55




NEGUA GERTURATZEN DENEAN... GAZTAINEN USAIN GOZOA

Guillermo Alvear gazteak orain dela 15 egun jarri zuen gaztainak saltzeko postua Domingo Irala kalean, azken urteotan egon den toki berean hain zuzen. Guillermo Ekuadortik etorritakoa da, eta negua bukatu bitartean egunero izango da gaztainak saltzen, 16:00etatik aurrera. Saltzen dituen gaztainak Portugaldik ekarritakoak direla esan zigun, eta dozena bat gaztaina erre 1,20 eurotan saltzen ditu. Oraingoz salmentak ondoegi ez doazela ere komentatu zigun, baina hotza etorri ahala negozioak hobera egiteko itxaropena dauka. Gaztainen usain gozoa antzematen da dagoeneko...



BERGARA KE-REN LIBURUA ESKURAGARRI

Bergara Kirol Elkartearen urrezko ezteiak ospatzeko kaleratutako liburua salgai dago oraindik. Interesatuak Deportivo tabernan, Saloki mertzerian, Lazkano oinetako dandan, Gracian mertzerian, edo kultura etxean eskura dezakete liburua, 18 euroren truke. 1952. urtean elkarte sortu zenetik gaur egunera arteko historia biltzen du liburua, eta 300 argazki inguru dauzka. Testuak Juan Luis Bikuña kazetariarenak dira, eta elkarteak liburuaren 2.000 ale kaleratu zituen irailean. Era berean, liburuaren CDa sei eurotan jarri dute salgai.



25 TONAKO FRESATZEKO MAKINA

Fresatzeko makina bat ekarri zuten herrira eguaztenean. Horrela esanda ez du misterio handirik. Kontua da 25 tona pisatzen duela, eta neurriak ere, halakoxeak: bederatzimetro luze, lau metro sakon eta lau metro garai. Labegaraietako industrialdeko Errasmodel lantegiak Alemanian erositako makina da, eta astebate eman dute handik ekartzen; izan ere, 40 km/h-ko abiadura ekarri dute.

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53


Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

MINGAINARITIRAKA



AITOR URIZAR

Aritz Aizpurua

JOXAN ARRANDEGIKOA

Aitaren ofizioari eutsiz, arrain-saltzaile dugu Aritz Aizpurua 28 urteko gaztea. Debarra jaiotzez, bost bat urte daramatza Bergaran lanean, Joxan arrandegian. Realzale amorratua, ilusionatuta dago txuri-urdinen aurtengo denboraldiarekin.

- Arrain-saltzaileok *arrain ederrak* zaretela esaten da. Ez dakit, hori esaten dutenei galdetu behar... (Barreak)
- Arrandegira emakumezko ala gizonezko gehiago joaten da? Emakumezkoak, baina gero eta gizon gehiago etortzen dira.
- Eman pisuzko arrazoi bat Gabonetan arraina jateko. Onartzen dut prezioekin gehiegikeriak izaten direla, eskaera eskaintza baino handiagoa delako, baina oso egun bereziak dira.
- Non prestatzen dute arraina ondoen? Getarian, esate baterako, parrilla bikainak daude.
- Zuk zeuk non afalduko zenuke gustura? Zeinekin? Elkartean, lagun koadrilarekin.
- Sukaldari ona zara? Zure espezialitatea? Saiatzen naiz sukaldean. Espezialitatea? Zapoamerikar erara.
- Laneko gauzarik onena eta txarrekoa? Onena, inoren agindupean lan egitea eta txarrekoa, ordutegia; batzuetan, gau osoa lanean, Ondarroa eta Pasaiarte artean.
- Egunkarian zer irakurtzen duzu lehenengo? Kirolak; futbol kontuak, batez ere.
- Realak zer egingo du aurten? Eta Athleticek? Realak Txapeldunen Liga jokatzeko sailkatuko dela uste dut, eta Athleticek sufritu egingo du aurten, zulotik irtengo den arren.
- Film, liburu eta musika talde bana? *Airbag*, *El señor de los anillos* eta *Rage Against the Machine*.
- Urtarorik gustukoena? Uda; zehazki, abuztua, oporrak izaten ditudalako.
- Bidaia bat nora egingo zenuke? Japoniara.
- Aste bukaerarako plan on bat? Baserri turismo batera joatea, neskarekin eta lagunekin.
- Parrandazalea zara? Orain, pixka bat gutxiago...
- Tabernak ala diskotekak? Parrandarako edari bat? Biak. Edateko, garagardoa eta gin-tonika.
- Amets bat? Gauzak ondo ateratzea bizitzan. Horrekin konformatzen naiz.

EDU MENDIBIL

BERGARARRAKMUNDUAN

FERNANDO MORENO

28 URTE / TELEBISTAKO KAMERALARIA / LONDRESEN DIHARDU LANEAN

“Lan egiteko metodo berriak ikastearren eta atzerrira irtetearren etorri nintzen”

EDU MENDIBIL

Fernando Morenok Irudi eta Soinu Ikasketak egin zituen Andoaingo Bideo Eskolan, eta maiatza ezkerreko Londresen ari da lanean, Antena 3 telebista kateko, hain zuzen. Ingalaterrara joan aurretik Bilboko Antena 3-ko ordezkari izan zen. Hark azaldu digunez, “lan egiteko metodo berriak ikastearren eta atzerrian esperientzia berriak hartzearen onartu nuen hona etortzeko eskaintza. Aldatzeko gogoia nukan, eta Ingalaterrara etortzea guztiz aberasgarria izango zelakoan nengoen. Bitan pentsatu barik etorri nintzen, eta oso gustura ari naiz hemen. Ez naiz damutzen hona etortzeaz”.

Londresko Camdem Town barruti ezagunean bizi da Fernando, Cameron eskoziarrarekin eta Russel ingelesarekin batera: “Egia esateko, zortea izan dut bikote horrekin. Cameron Glasgowkoa da, eta diseinatzaile grafiko lanak egiten ditu. Russel Liverpoolen jaiotakoa da, eta pub bateko managerra da. Oso jatorrak dira biak ere, eta badaukate gogoia sagardotegi batera joateko eta Euskal Herriko gau giroa bizitzea. *Bergara* berba zuzen ahoskatzen dute dagoeneko, eta hara joateko irrikan daude. Euskal Herriko ordu txikietan tabernaz taberna ibili ahal izatea sinesgaitza egiten zaie, pubak nahiko goiz ixten dituztelako hemen”.

Camden Town Londresera joaten diren turista askoren ezinbesteko jomuga da: “Azoka txikiengatik, arropa dendengatik eta *postaleko punkengatik* da ezaguna, batez ere. Oso

“Aisialdirako nahi baino denbora laburragoa daukat, baina lanari esker asko bidaiatu dut”

gune bizia da. Londresen mundu guztiko jendea topa daiteke, eta, egia esateko, ez zait kostatu hemengo bizimodura ohitzea. Oso hiri handia da, baina Camden herri moduko bat da, Bergara Gipuzkoa barruan den antzera. Hori bai, Londresen eskaintza ikaragarria dago; azken baten, munduko hiri garrantzitsuetakoa da, aspalditik, gainera”.

Horrek ere baditu kontrakoak. Askotan esan ohi da oso hiri garestia dela, eta Fernandok hori baieztatu digu: “Gehiegizkoa da.

Garagardo pinta batek, esaterako, bost euro balio du, eta etxebizitzaren errentak eta garraioak ere oso garestiak dira. Kanean saltzen dituzten *fish & chips* famatuak Euskal Herriko txuletoiaren parean daude. Atera kontuak!”.

Lanari dagokionez, lan egiteko moduan diferentziak aurkitu ditu Londresen: “Kameralari eta muntaketa lanak egiteaz gain, dokumentalista eta ekoizle lanak egitea egokitu zait. Bestalde, agentzien bitartez lor dezakezun materialak garrantzi handia dauka. Ipar Irlandaren gainean albiste bat ateratzen denerako, adibidez, artxiboko irudiak gertu izan behar ditut. Hori dela eta, kalean lanean ez baldin banabil, bulegoan izaten naiz, bideo zintak ikusten eta artxiboko irudiak aukeratzen”. Aisialdirako nahi baino denbora laburragoa daukala dio: “Hori bai, asko bidaiatu dut hemen nagoenetik. Duela aste batzuk, Irlandan izan nintzen, Europako Batasunaren hantzearen gaineko erreferendumaren berri ematen”.

Bergarako beste hainbat gazte ere bizi dira Londresen: “Mikel Murgoitioarekin, Ana Abajorekin eta Gorka Mendozarekin irten izan naiz, eta ilusioa egiten du herriko jendearekin egotea”. Oraindik ez daki noiz arte egongo den Londresen: “Oraindik, datorren urteko ekainera arte daukat kontratua, eta gero, geroakoak. Lanbide honetan zaila da jakitea non amaituko duzun”. Gabonetan Bergarara etortzeko gogoia dauka Fernandok, azken aldiz udan egon zen-eta.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

ESKUBALOIA

Senior mutilen eskubaloi taldeak partidu erabakigarria, zapatuan, Sestaoren aurka

Bergarrek lehen partidua irabazi zuten zapatuan, Ormaiztegin, eta sailkapenean sestaoarrekin berdinduta daude

EDU MENDIBIL

Bergara KEko senior mutilen taldeak Sestaoren aurkako partidu garrantzitsua jokatu du bihar, zapatua, Labegaraie-tako kiroldegian, 17:15ean. Bi taldeak sailkapeneko azken postuan berdinduta daude, hiruna punturekin.

Begarrek denboraldiko lehen partidua irabazi zuen zapatuan, Ormaiztegin, 24-25. Edu Orgaz entrenatzailearen esanetan, "oso partidu gogorra izan zen. Markagailuan gorabehera asko izan ziren, eta, zorionez, azken segundotan gol bateko aldeari eutsi ahal izan genion. Ormaiztegin irabaztea ez da batere erraza, eta talde osoak egin zuen lana nabarmendu nahiko nuke". Lehenengo zatia 11-13 bukatu zen. Partidua amaitzean zegoela Eugenio Cabok sartutako penalti bati esker irabazi zuen Bergara taldeak, 24-25. Cabo bera izan genuen mahoneroen golegilerik onena: zortzi gol egin zituen.

Begararak zortzi partidu jokatu ditu orain arte. Aurretik Ereintzaren aurka berdintzea lortu zuten, eta gainerako sei partiduetan galtzaile izan genituen.

Biharko partidua hil edo bizi-koa da, Edu Orgazaren esanetan: "Sestaoren aurkako partidua derrigorrez irabazi behar dugu. Irabazten badugu, sailkapenean gure aurretik diren hainbat talderekin bat egin dezakegu".

Orain arte, defentsa lanetan nahi baino arazo gehiago izan dituzte mahoneroek: "Bigarren mailan talde beteranoak daude, eta beste batzuk filialak direnez, kalitate handiko jokalarik gazteak egoten dira. Defentsa lanetan hobetu beharra daukagu. Erasoan, berriz, ez dugu arazorik izan orain arte golak egiteko".

BESTE HIRU TALDEEK, GALDU

Beste hiru eskubaloi taldeek galdu egin zuten aurreko jardunaldian: senior neskek Askartzaren kontra (16-17), gazte mutilek Egia-aren kontra (20-29) eta kadete neskek Zarautzen kontra (20-23).



Argazkian, aurreko denboraldian bigarren mailarako igoera lortu zuen taldea.

Iban Franco: "2. B mailan jarraitu nahi nuen, eta Gernikaren eskaintza izan nuen"

E.M.

Eibarren hiru urte eman eta gero, Iban Franco jokalaria bergarra (24 urte) 2. B mailako Gernika futbol taldean ari da aurten. Gernikarrek sailkapeneko azkenaurkeko tokian daude, hamar punturekin. Aste bukaeran, Binefar hartuko dute, etxean.

Partidu guztietan jokatzetik izan duen arren, gauzak ez zaizkio nahi bezala aterata Iban Francori: hainbat partidutan aulkian izan da hasieratik eta, horrez gain, orain arte ez du golik egiterik izan. Iaz, 2. B mailako Eibar taldean sei gol egin zituen aurrelari bergararrak.

Gernikaren entrenatzailearen esperientzia handiko gizona dugu: Alfonso Barasoain. Entrenatzaile bizkaitarrak Eibarren eman zituen urte onenak, bi alditan: 1988-1990 artean, eta, batez ere, 1998-1999 denboraldian, Eibarrek azken partiduan 2. A mailari eutsi zionean.

Gernika nahiko gaizki dabil aurten: hiru partidu irabazi ditu, bat berdindu eta gainerako zortziak galdu egin ditu. Azken jardunaldian, egubakoitzean, 3-1 gal-



Iban Francok urtebeterako kontratua dauka Gernikarekin.

du zuen, Kalagorin (Errioxa), eta TVEk eskaini zuen partidua zuzenean. Aste bukaeran, sailkapeneko azken tokian dauden Gernika eta Binefar taldeen arteko partidua izango da, Gernikan.

Gernikarekin fitxatu aurretik, Ibanek hiru urtez jokatu zuen Eibarren, lehena 3. mailan eta

azken biak 2. B mailan. Joan den denboraldian taldea mailaz jaisteaz, Eibartik alde egiteko erabakia hartu zuen: "2. B mailan jokatzeko jarraitu nahi nuen, eta Gernikaren eskaintza izan nuen. Barasoianek berak deitu zidan, eta Eibartik lau lagun etorri ginen: Erostarbe, Muniozuren,

Astola eta laurok. Nahiko ondo ordaintzen didate, eta etxea ere jarri digute. Taldeko bi lagunekin bizi naiz Gernikan. Onartzen dut futbolari bizi dela, baina gauza batzuk alde batera laga behar dira".

HELBURUA, MAILARI EUSTEA

Gernikaren helburua mailari eustea dela dio Ibanek: "Taldea onartzen ari gara, baina zenbait partidutan huts erabakigarriak egin ditugu. Entrenatzailearen lehentasuna golik ez jasotzea da, eta askotan zazpi lagun jartzen ditu atzean, bost defentsa eta bi pibote. Baina gol aukerak ere sortzen ditugu. Ez dugu zortzerik izan orain arte". Aurrelari postuan jokatzeko du Ibanek, erditik zein ezkerreko, baina nahiago du aurrelariaren atzetik jokatzeko. Ibanen gustuko futbolariak Laudrup, Alkiza eta Guardiola dira.

Ingeniaritza ikasketak eta futbola tartekatzen ditu Ibanek. Gernika taldearekin urtebeterako fitxatu du (Pello Uralde jokalaria ohia da Ibanen ordezkaria): "Oraindik gaztea naiz, eta, ahal izanez gero, etorkizunean, lanean hasi eta futboleko jarraitzea gustatuko litzaidake".

MENDIA


Eski eta mendi materialaren azoka, Pol-Polen

Datorren astean, eski eta mendi materialaren azoka irekiko dute Pol-Pol Mendizale Elkartearen erakustokian. Astelehenean, hilak 25, zabalduko dute azoka eta aste barruan ordutegia honako hau izango da: 19:00etatik 20:30era. Eta zapatuan, hilaren 30ean, 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Bertan, bigarren eskuko eski eta mendi materiala prezio interesgarrian salgai aurkituko dute interesatuek. Pol-Polen ekimen horrek harrera ona izan du azken urteotan.

PILOTA

Pala Txapelketa, zapatuan, Angiozarren

Bihar, zapatua, Pala Txapelketa laugarren jardunaldia jokatu da, Angiozarren, 16:00etan: Pradera anaiak Tueros-Urain bikotearen aurka, Muruamendiaraz-Lizaralde eta López-Okariz arteko partidua, eta, azkenik, Diaz eta Hernández Muruamendiaraz eta Acedoren kontra.



ARGAZKI PRESS

Abel Barriola Lau t'erdiko azken txapelduna dugu. Joan den egubakoitzean, Capellan kanporatu zuen, Donostian (22-6).

PILOTA

Barriola-Unanue Lau t'erdiko ligaxkako lehen partidua, Bergaran

Barriola txapeldunak eta Unanuek Capellan eta Lasa kanporatu zituzten, hurrenez hurren

E.M.

Pilota jaialdi bikoitza izango da bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan. Goizean, bigarren mailako Lau t'erdiko finalerdia, 12:30ean, eta arratsaldean, Barriola eta Unanue izango dira aurrez aurre, Lau t'erdian.

Unanueren eta Barriolaren arteko partiduekin hasiko da Lau t'erdiko Txapelketako ligaxka. Haiekin batera Iñaki Esain eta Aimar Olaizola sailkatu dira finalerdietarako. Esain eta Olaizola elkarren aurka arituko dira, domekan, Eibarko Astelenan.

Abel Barriolak eta Mikel Unanuek sasoi betean daudela erakutsi dute txapelketan. Barriola azken txapeldunak erraz irabazi zion, aurreko egubakoitzean, Capellan errioxarrari, Atano III.a pilotalekuan (22-6). Unanuek, bestalde, Bergaran jokatu zuen, zapatuan, Lasa III.aren aurka, eta hark ere ez zuen eragozpenik izan sailkapena lortzeko. Añorgakoa 22-10 nagusitu zitzaion nafarra-

ri. Barriolak zein Unanuek bada-kite zer den txapela janztea: Barriola Lau t'erdiko azken txapelduna dugu, eta Unanuek 1999ko txapelketa irabazi zuen. Hasiera baten, behintzat, maila handiko partidua izango da bihar-

Barriola Lau t'erdiko azken txapelduna dugu, eta Unanuek 1999an jantzi zuen txapela

Zapatu eguerdian, bigarren mailako Lau t'erdiko finalerdia Udal Pilotalekuan

koa, nahiz eta Barriola izan faberito nagusia. Atzo egitekoa zuten material aukeraketa.

Zapatuko jaialdia osatzeko, bikotekako bi partidua izango dira: Agirre eta Lasa III.a Tirapuren eta Patxi Ruizen aurka eta azken partiduan Baleztena-Auxkin eta Azpiroz-Albizuri bikoteak izango dira aurrez aurre.

Eguerdian, 12:30ean, bigarren mailako Lau t'erdiko finalerdia izango dira: lehenbizi, Pinedo Arbizuren aurka eta jarraian, Leiza Sarriegiren aurka.

HERRIKO PILOTARIAK, GAUR

Gaur, egubakoitza, herriko pilotarien partidua jokatuko dira, 19:10ean. Gipuzkoako Txapelketaren barruan infantil mailako bi bikoteek Oñatiko eta Eskoriazako bikoteen aurka jokatu dute eta gazte bikoteak Altzatarren aurka jokatu du. Gabonetako Txapelketako partidua bat ere izango da aurretik.

Senior mailako Muguruza-Gutiérrez bikotea finalerdietarako sailkatu da dagoeneko.

Bi saskibalo partidu, bihar, zapatua, Labegaraietan

E.M.

Bihar, zapatua, bi saskibalo partidu jokatuko dira Labegaraietako kiroldegian: alde batetik, bigarren mailako kadeteak Zarautzen aurka neurtuko ditu indarrak, 12:15ean. Iker Barberok eta Igor Urisabelek zuzentzen duten taldea ondo dabil, eta joan den zapatuan ere irabazi egin zuten. Hain zuzen, Donostiako Santo Tomas Lizeoari irabazi zioten (50-45), Labegaraietan.

SENIORRA, LIDERRAREN AURKA

Bestalde, senior taldeak Altza liderra hartuko du, 19:15ean. Bergarak lau partidu jokatu ditu orain arte, eta aurreko aste bukeran galdu zuten aurreneko partidua, Oñatin, Aloña Mendiren aurka (73-44). Ramon Conde entrenatzailea pozik dago jokalaria erakusten arj diren mailarekin, baina zail ikusten du bihar liderri irabaztea. Edozelan ere, azken minutura arte gogor borrokatuko dutela adierazi digu.

Bergara-Anaitasuna partidua, zapatuan, Agorrosinen

E.M.

Bergara eta Anaitasuna preferente mailako futbol taldeen arteko partidua izango da bihar, zapatua, Agorrosinen, 15:30ean. Bergarak bolada onari eutsi nahi dio sailkapenean gora egiteko.

Bergarak bina egin zuen domekan, Hernanin. Esku hutsik bueltatzeko zorian izan ziren mahoneroak, baina azken minutuan Xabi Arregik egindako gol bati esker puntu bat eskuratu zuten Juanina Garairen mutilek. Bi aldiz partidua berdintzeko gauza izan ziren bergararrak. Bana-koa Gorka San Vicentek egin zuen, penalti jaurtiketa baten bidez, 40. minutuan.

Bergara sailkapeneko seigarren tokian dago, 19 punturekin, eta Tolosa liderraren atzetik (27 gol) gol gehien egin dituen taldea da: 24 gol. Biharko partidua oso garrantzitsua da: azkoitiarrak Bergararen aurretik dira sailkapenean, 23 punturekin, eta bihar Bergarak partidua irabaziko

balu, goialdeko taldeekiko aldea murriztuko luke. Bergararen aurretik Berio (23 puntu), Anaitasuna, Pasajes eta Elgoibar (24na) eta Tolosa daude, eta atzetik, berriz, Mundarro (16 puntu) eta Zarautz, Hondarribia, Trintxerpe eta Aretxabaleta (15na puntuekin laurak) datoz.

BESTE LAU PARTIDU ASTE BUKAERAN

Bihar, beste futbol partidu bat ere izango da: nesken taldeak Mondraren aurka jokatu du, Ipintzan, 17:30ean. Domekan, berriz, hiru partidu iragarri dituzte Ipintzan: infantilak Amaikak Bat hartuko du, 10:30ean, bigarren mailako gazteek UDAREN aurka jokatu dute, 12:15ean, eta, azkenik, bigarren erregionaleko taldeak Amaikak Bat izango du bisitari, 16:30ean. Etxetik kanpo azken bi partidua galdu egin ditu bigarren erregionaleko taldeak, Gazteak eta Zumaiako taldeen aurka. Bosgarren postura jaitsi dira, liderrak izan ostean. Andoni Azkargortaren mutilek aurkari zaila izango dute domekan, debarrak liderrak dira-eta.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

DOMEKAN, BARRUAN


| | |
|--|--|
| 09:30: Getokuak-Txipiron. Dedo Pafarru | 17:00: Mongatxurak-Argandolas. Belengua |
| 10:30: Dedo Pafarru-Etengabe. La Quinta | 18:00: Belengua-Irubide. Cipote Nucleico |
| 11:30: La Quinta-Errotagain. Bedarreta | 19:00: Cipote Nuc.-Torrekoa. Irubide |
| 12:30: Bedarreta-Canalejas. Errotagain | 20:00: Las putas de Sat.-Aterpe. Antolak. |
| 16:00: Fac-Pagomendi. Mongatxurak | |

Babeslea

KIROLA ZEURE ESKURA

www.forumsport.com

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



Bertol Arrieta iazko irabazleak (irudian), Sustrai Colinak, Iban Zalduek eta Jabier Muguruzak osatuko dute epaimahaia.

Berritasun gisa, Sakelako Telefono Bidezko Maitasun Mezuen Lehiaketa ere izango da

Amodiozko Gutunen XI. Berrigara Lehiaketa, abian

MONIKA BELASTEGI

Jardun Euskara Elkarteak kaleratu ditu dagoeneko Amodiozko Gutunen Lehiaketa parte hartzeko oinarriak. Berritasun batekin dator, gainera; izan ere, ohiko gutunez gain, Sakelako Telefono Bidezko Maitasun Mezuen Lehiaketa ere jokatuko da.

Amodiozko Gutunen XI. Berrigara Lehiaketa 1988an edo lehenago jaiotako edozeinek har dezake parte. Lanak jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz izan beharko dira, eta gutun forma izan beharko dute. Bestalde, eskuz zein makinaz idatzita aurkeztu ahal izango dira; ezin izango dira

bi orrialde baino luzeago izan. Lanean ez da egilearen daturik jarri beharko, lelo bat baizik. Egilearen datuak gutun-azal itxi baten sartu, eta gutun-azal horren azalean lanean jarri den lelo bera jarri beharko da. Lana (orijinala eta hiru kopia) eta egilearen datuak dituen gutun-azala beste gutun-azal handiago baten sartu eta honako helbidera bidali beharko da: Amodiozko Gutunen XI. Berrigara Lehiaketa, Jardun Elkarte, Errotalde jauregia.

E-postaz ere bidal daiteke lana, eta, kasu horretan, gutuna fitxategi baten bidali beharko da, Gutuna izenarekin, eta egilearen datuak *Egilea* izena duen beste fitxategi baten. Helbidea honakoa da: jardun@topagunea.com.

Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 8a izango da, eta sari banaketa, otsailaren 14an, San Balentin Egunean. Lau sari izango dira: lehenengo bi gutun onenak, Bergarako Onena eta Irakurle Gazteen saria.

SAKELAKO TELEFONO BIDEZKO MEZUAK

Horixe da aurtengo lehiaketaren berritasuna. Sakelako Telefono Bidezko Maitasun Mezuen Lehiaketa, alegia. Parte hartzaile bakoitzak ezin izango du mezu bat baino gehiago bidali, eta mezuaren ostean sakelako telefonoaren zenbakia eta adina jarri beharko dira. Mezuak jasotzeko epea: urtarrilaren 1etik 15era; honako zenbakietara bidali beharko dira mezuak: 652729435 edo 605712469.

'Egileor'-i omenaldia gaur

Egileor Bergarako bertsolariari omenaldia egingo diote gaur, egubakoitza, 22:30ean, Novedades aretoan. Jardun Euskara Elkarteak antolatutako bertso jaialdiaren barruan egingo diote omenaldia. Jaialdiaren hasieran izango da hori, eta horren ondoren bertso saioa izango da. Bertsolari hauek arituko dira: Ainhoa Agirreazaldegia, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Imanol Lazkano, Jose Agirre eta Jose Luis Gorrotxategi. Gai-jartzaile Egoitz Aizpuru arituko da. /M.B.



Piano emanaldiak izango dira zapatuan eta domekan

MONIKA BELASTEGI

Bihar, zapatua, Esther Barandiaranek eta Itxaso Aristizabalek osatutako bikoteak egingo du emanaldia. Domekan, berriz, Judith Jauregik. Bi emanaldiak udaletxeko areto nagusian izango dira, 19:30ean.

Piano emanaldiak izango dira nagusi asteburuan. Bihar, zapatua, bi piano jotzaileen lana ikusgai izango dugu; Esther Barandiaranek eta Itxaso Aristizabalek osatutako bikotearena, hain justu. Lau eskutara egingo dute lan, eta lau musikagileren obrak eskainiko dituzte: J. Brahms-

enak, C. Debussy-renak eta G. Fauré-renak, besteak beste.

1994an amaitu zituzten piano ikasketak, baina hobekuntza ikasketekin jarraitu zuten, Suitzatan, bost urtez. Han erabaki zuten bikotea osatzea, eta gainera musikan barneratu ziren.

DOMEKAN, JUDITH JAUREGI

Eta domekan, Judith Jauregik egingo du emanaldia. Donostia-ko Musika Eskolan eta Kontserbatorioan ikasi du pianoa jotzen, eta hainbat sari eskuratu ditu.

Udaletxean egingo duen emanaldian lau musikagileren lanak jokatuko ditu: besteak beste, J. Haydn-enak eta J. Brahms-enak.



Esther Barandiaranek eta Itxaso Aristizabalek lau eskutara egingo dute emanaldia.

Roberto Madariagak lortu du Argazki Rallyko lehen saria

MONIKA BELASTEGI

Joan den egubakoitzean (hilak 15) erabaki zituen Pol-Pol argazki taldeak urrian jokatutako Argazki Rallyko sariak.

Bost sari banatu dituzte. Lehen saria Roberto Madariaga zaldibartarrak eskuratu du; bigarrena, Benito Cantero bergararrak eta hirugarrena, Luis Francisco Lavori zumaiarrak. Horrez gain, Herriko Argazki Onenaren saria Hilario Azkargortak esku-

ratu du, eta Gazte saria, berriz, Bergarako Naiara Canterok.

Rallyan 42 lagunek hartu zuten parte eta Gazteen Sailean, berriz, bost lagunek. Bergarako parte hartzaile ugari izan ziren: 20, hain zuzen ere.

SARI BANAKETA ETA PROIEKZIOA

Sari banaketa gaur, egubakoitza, izango da, 20:00etan, Pol-Pol argazki taldearen lokalean. Sari banaketaz gainera, lanen proiektzioa ere egingo dute.



Irudikoa Roberto Madariaga irabazlearen Oxido lana da.

E, TXO!

FILM EMANALDIA
GAZTETXEAN

Eguaztenero moduan, hilaren 27an ere film bat ikusteko aukera izango dugu gaxttxean, 22:15ean: *Los amantes del círculo polar*, hain zuzen ere. Julio Medem zuzendariaren laugarren filma da, eta 1998an egin zuen.

XV. POP ROCK LEHIAKETA

Disko bat baino gehiago argitaratu ez duten eta aurreko deialdietan saririk lortu ez duten musika taldeek parte har dezakete Bilboko Udalak antolatzen duen lehiaketa horretan.

Hiru modalitate daude: pop-rocka, metala eta joera berriak. Parte hartzeko, gutxienez, hiru kantut grabatuta dituen maketa aurkeztu beharko da, abenduaren 31 baino lehen. Informazio zabalagoa topatuko duzue www.bilbao.net/bilborock webgunean.

SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOAREN BEKA

Sancho El Sabio Fundazioak Euskal Bibliografiaren gainean ikerketa egiteko beka deialdia egin du. Ikerketaren gaia librea izango da, baina, betiere, euskal kulturaren edozein adierazpenen gainean bibliografia edo dokumentazioa berreskuratzeke. Batutako dokumentazio edo bibliografia hori Sancho El Sabio Fundazioaren fondoa osatzeko izango da.

Bekaren onuradun izateko, diplomaduna edo lizentziaduna izan behar da, eta azaroaren 29a baino lehen aurkeztu behar da eskaera. Horren guztiaren gainean informazio zabalagoa topatzeko: www.fsancho-sabio.es webgunean edo 945 14 78 00 telefono zenbakira deituta.

GUREGAIK/ SEXOLOGIA

Sexologia Zerbitzua dago Arrasaten

AINTZANE IRIZAR

Sexu kontuen gaineo informazioa eta aholkularitza eskaintzen dituen zerbitzua dago Arrasaten. Sexologia Zerbitzuan sexologo baten laguntza jaso dezakezue, zuen kezka eta zalantzak argitzeko.

1986. urtean zabaldu zuten Arrasaten Sexologia Zerbitzua, bertako emakume taldeek eta Gazteria batzordeak bultzatuta. Biteri kaleko Garibai etxean dago, Gazte Informazio Bulegoarekin batera. Batez ere gazteendako zerbitzu moduan zabaldu zuten arren, adin guztietako jendearendako zabalik ditu ateak. Bestalde, nahiz eta, berez, arrasate-

arrei zuzendutako zerbitzua izan, ibarreko gainerako herrietan horrelako zerbitzurik ez dagoenez, herri guztietako jendeari eskaintzen diote zerbitzua.

Bulegora joaten diren gehientsuenak 15 eta 35 urte bitartekoak izaten dira. Informazio zerbitzuaz gain, aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen dute sexologoek.

Honakoa da bulegoaren ordutegia: astelehenean, 17:00etatik 20:00etara eta eguenetan, 15:00etatik 18:00etara. Eta urtarriletik aurrera ordutegia zabaltzeko asmoa dute. Edozelan ere, telefonoz (943 79 80 10) eta posta elektronikoz ere egin ditzakezue kontsultak (sexologiazerbitzua@arrasate-mondragon.net).



XABI URTZELAI

Biteri kaleko Garibai etxean eskaintzen dute Sexologia Zerbitzua.

LOTSABARIK/ Ander Arenaza

“Oso pertsona behatzailea naiz”

AINTZANE IRIZAR

Mutil arduratsua dugu Ander, eta ikasketei ematen die lehenetsuna; horregatik-edo, oso ondo moldatzen da gurasoekin. Ordenatua izatea besterik ez zaio falta gurasoak gustura edukitzeke.

• Txikitari, zer izan nahi zenuen?

Denetik; egun batetik bestera aldatzen nituen nire nahiak.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zeure burua?

Egia esan, ez dut horrelakotan pentsatzen; nahiago dut unean-unean arreta jarri, etorkizunean gauzak ondo joateko.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berrero?

Ordenatua izateko; apunteak, paperak, eskolako materiala zeharo desordenatuta edukitzen ditut. Izan ere, ez dut astirik edukitzen gauzak txukuntzeko.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Ondo moldatzen naiz gurasoekin; nitaz fidatzen dira, oso arduratsua naiz-eta.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehenetsuna?

Osasunari eta ikasketei.

• Zure bertu bat?

Esaten didate oso detailezalea naizela; jendea lausengatzea gustatzen zait, jendea ondo sentitzea nahi izaten dut.

• Eta hutsune bat?

Burugorria naizela.

• Zerk amorratzen zaitu?

Umilazioak.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Ezpainak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Ahal dudan guztiari: oso behatzailea naiz.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Naizen modukoa izan; norbaiti gustatzen bazaio zelakoa naizen, bada, hor nago.


• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Top secret. Hobe galdera horri ez erantzun, bestela, fama txarra hartuko dut.



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: DBHko laugarren maila • ZALETASUNAK: Musika • MUSIKA TALDEA: Denetik gustatzen zait
LIBURU BAT: Bat osorik irakurtzen dudana egunean, esango dizut • FILM BAT: 'Los otros' • KIROL TALDEA: Ez zait gustatzen kirola

TIRABIRAKA/ Joseba Lasa



ZAHARREN ETXETIK

Arantxa Goikoetxea, Mizpirualdeko koordinatzailea: "Itxaron zerrenda nahiko handia daukagu momentuan"

EDU MENDIBIL

Arantxa Goikoetxea dugu Mizpirualde egoitzako koordinatzaile berria; Alazne Irazabalen amatasun baja beteko du. Gaur egun, 115 bizilagun daude Mizpirualden, eta plaza guztiak beteta daude.

Arantxa Goikoetxearen esanetan, "menpetasuna dutenen pertsonen kopurua handituz doa, eta momentu honetan, itxaron zerrenda nahiko handia daukagu Mizpirualde egoitzan, Gipuzkoako egoitza gehienetan gertatzen ari den bezalaxe". Arantxa Goikoetxea Hernanin jaiotakoa da, 31 urte ditu, eta aurretik, besteak beste, Antzuolako eta Elgetako udaletan izan da lanean, gizarte laguntzaile. Hark azaldu digunez, "ez dauka zerikusirik udal baten lan egiteak zaharren

egoitza bat koordinatzearekin. Mizpirualden bizilagunak, haien familiarakoak eta egoitzako langileak gustura egotea da gure lehentasuna".

Egoitzako langileak eta Lending enpresaren bitartez azpi kontratutakoak ari dira Mizpirualde egoitzan lanean. Arantxa Goikoetxearen ustetan, "zerbitzu ona eskaintzen dela esango nuke, eta Gipuzkoako beste hainbat egoitzaren maila berean dago Mizpirualde egoitza".

FAMILIARTEKOEN BATZORDEA

Berritasunen artean, Familiartekoen batzordea osatu berri dute Mizpirualde egoitzan. Bost lagunek osatuko dute batzorde hori, eta haien zeregina honakoa izango da: funtzionamendua hobetzeko ekarpenak egitea. Goikoetxearen hitzetan, "egunero etortzen den jende asko dago, eta zer esana badaukate".



Arantxa Goikoetxea, Mizpirualdeko bulegoan.

Hogei emakume ari dira San Joxepen antolatutako Eskulan ikastaroan

E.M.

Dagoeneko abian dira San Joxepe elkarteak antolatu dituen ikastaroak. Eskulan ikastaroan 20 emakumek dihardute, Ines Elortza irakaslearen esanetara. Astelehenero hiru orduz jarduten dute, 17:00etatik 20:00etara, hain zuzen ere. Urrian ekin zioten ikasturte berriari, eta ekainera bitartean arituko dira.

Ines Elortza legazpiarrak azaldu zuenez, "eskulanekin zerikusia duten era askotako lanak egiten ditugu: gurutze-puntua, hariak ateratzea, bordatu mallorcarra, bainiak, *hardanger* delakoa, baita margolanak ere". Elortzak 15 urte inguru daramatza San Joxepe elkartearen Eskulan ikastaroak ematen.

Urte batetik bestera ikastaroan jarraitzen dutenak badira. Astelehenero argazkia ateratze-ra joandakoan, umoretsu aurki-



Eskulan ikastaroan ari direnek era guztietako lanak egiten dituzte.

tu genituen lanean. Elkarrekin primeran pasatzen dutela esan ziguten. Ikastaroan ari direnen urtebetetzeak ospatzen ere ez

dute hutsik egiten. Egindako lanekin erakusketa egingo dute urri aldera, erretiratuen Kultur Hamabostaldia ospatzen denean.



Zaharren Astea Mizpirualde egoitzan

Astean barrena hainbat ekitaldi izan dira Mizpirualden. Herriko hainbat talderen laguntzarekin, giroa piztea da helburu nagusia. Astelehenero, esaterako, Musika Eskolako hari taldeak emanaldia egin zuen (argazkian). Eta Zaharren Astea amaitzeko, bihar, zapatua, Alai Taldeak lagundutako meza izango da, 11:45ean; eta mezaren ondoren, Mizpirualdeko bizilagunek bazkaria egingo dute. Bazkalostean, berriz, Xamatza dantza taldeak saioa egingo du. /ARGAZKIA: AITOR URIZAR



- Ordenadoreak neurriara
- Zerbitzu teknikoak
- Informatika-sareak

Artekalea 11, behea BERGARA
Tel./Faxa: 943 76 30 57 • 609 15 01 69
E-maila: idelta@teleline.es



INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

EDEL

TAPIZDENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiara-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBerezibar

Zein da San Martingo baserri honen izena?

GALDEDEBALDE

1. Zenbat ordenadore daude Irizar jauregian zabaldu berri dute KZGunean?
A/ 30.
B/ 15.
C/ 20.
2. Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketa abian da. Zenbagarren ekitaldia izango da?
A/ XIII.a.
B/ XI.a.
C/ XVI.a.
3. Zenbat gol egin zituen Iban Francok aurreko denboraldian Eibar B futbol taldean?
A/ Sei.
B/ Hamabi.
C/ Lau.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

AINHOA ARANBURUrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Ainhoa! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Animen eguna Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Delfin langostinoak

Kiloko 21/30

10,37 €

1.725 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



PINTOREBERGARARRAKGAUR

Juanjo Altuna

EDU MENDIBIL

A rrasatearra jaiotzez, Juanjo Altuna (1943) ezkondukoan etorri zen Bergarara bizi izatera. Pintura txiki-txikitatik bizi izan duela diosku, aita ere margolaria zen-eta. Hala ere, Bergarara etortzea erabakigarria izan zen bere heziketan: "Hemengo giroa ikusita, pintura modu serioagoan hartzen hasi nintzen. Verdury Hall-en hainbat lagun elkartzen ginen orduan, eta elkartruke hari esker asko ikasi dut. Egun bateko lehiaketak ere aberasgarriak dira oso".

Juanjoren esanetan, pintura droga modukoa da. Egunero joaten da estudiora, eta, horrez gain, eskolak ematen ditu Elorrioren eta Bergaran. Betidanik pintore espresionistak gustuko izan ditu, baina gustuak aldakorrek direla dio. *Espacios en construcción* izenarekin biltzen ditu lanak: "Lan geometrikoak dira, eta gauza gutxiarekin dena esaten ahalegintzen naiz. Ikusleak hunkitzeko, lehenbizi, norbera hunkitzea beharrezkoa da". Herriko margolari sarituenetakoa dugu. Aurten, besteak beste, Errioxako Parlamentuak ohorezko domina eman dio.

"Ikusleak hunkitzeko, lehenbizi, norbera hunkitzea beharrezkoa da"



E.M.

Arin jatetxea

BERRIZ ZABALIK

Eguneko menua · Menu berezia
Karta · Kintadak

Kalebarren 7 ANTZUOLA 943 78 71 63

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

AGOITZ

tapiz
denda

Leizariako
San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675



BERGARA
Maite Nuñez
Azaroaren 27an 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Nerea.



BERGARA
Nerea Odriozola
Azaroaren 26an 5 urte.
Urte askotarako!
Maialen.



BERGARA
Maitane Arantzabal
Azaroaren 26an 6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Enara Chimeno
Azaroaren 23an 5 urte.
Zorionak! Gurasoak eta
anai-arrebak.



BERGARA
Iraia Beitia
Azaroaren 22an 13 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Jon Perez
Azaroaren 22an 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Ane Motoso
Azaroaren 26an 7 urte.
Urte askotarako!
Amaia eta gurasoak.



BERGARA
Ainhoa De Marcos
Azaroaren 20an 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Josu Gaztelu
Azaroaren 26an urtebete.
Zorionak! Etxekoak;
bereziki, Amaia eta Aitor.



BERGARA
Olatz Diaz
Azaroaren 21ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mari Paz Carriet
Azaroaren 21ean 36 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Nerea Urresti
Azaroaren 25ean 8 urte.
Zorionak eta muxu bat
etxeko printzesari.



BERGARA
Julen Muruamendiaraz
Azaroaren 24an 9 urte.
Zorionak eta muxu bat!
Maitane eta gurasoak.



ELGETA
Jone Izagirre
Azaroaren 27an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Amaia Ruiz
Azaroaren 25ean 3 urte.
Urte askotarako!
Olatz eta Ander.



BERGARA
Beñat Loidi
Azaroaren 27an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
June Lopez
Azaroaren 25ean 3 urte.
Urte askotarako! Markel,
Malen eta etxekoak.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



**SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK**

AGENTEA

Ramon Maria Lili, 6-behea

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54

Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:

9.00-14.00 eta 15.30-19.30



**IRAEGI
ASEGURUAK**

TELEIXA BILTEGIAK

**Eraikuntza
materialak**


Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

Deutsche Post  World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



Guipuzcoana Euro Express: Nazio eta Europa mailako paketeria garraioa

San Juan Erreka z/g Elgeta bidea. Bergara - Tel. 943 763 642 - Faxe 943 765 425

 **GUIPUZCOANA**
EURO EXPRESS

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko azaroaren 22a / 135. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02


Simon eta Kaxiano omenduko dituzte, Santa Zezilia Eguna dela eta

AINTZANE IRIZAR

Gaur, egubakoitza, Santa Zezilia Eguna dela eta, Simon Artolazabal eta Kaxiano Iburguren musikariak omenduko dituzte oraingo asteburuan. Bihar, zapatua, musika emanaldia izango da, parrokiari. Bi musikarien gaineko erakusketa ere jarriko dute.

Simoni eta Kaxianori egingo dieten omenaldiaren ekitaldi nagusia bihar, zapatua, izango da, Antzuolako parrokiari, 18:00etan. Musika emanaldia egingo dute hantxe, musikari biak omentzeko. Herriko taldeek parte hartuko dute emanaldi horretan, honako hauek, hain zuzen ere: txistulari taldeak, bertsolari taldeak, Musika Eskolako umeeak, abesbatzak eta Oinarin dantza taldeak; Antzuolako Udalak ere parte hartu du omenaldia antolatzen. Omenaldia bukatutakoan, gaztainera jana izango da, urtero bezala, herriko plazan.

Baina musika emanaldi hori ez da omenaldiko ekitaldi bakarra izango; izan ere, bi musikarien gaineko erakusketa jarriko dute Olanan etxean bihar, zapatua, eta domekan. Simonen eta



Ezkerraldean, Simon Artolazabal eta eskuinaldean, Kaxiano Iburguren.

Kaxianoren ehunetik gora argazki ikusteko aukera izango dugu, baita haiek erabili izandako hainbat material ere.

Erakusketa horrekin batera, ezusteko txiki bat ere prestatu dute antolatzaileek; ezusteko hori

ikusteko, hortaz, erakusketara joan behar. Goizez, 12:00etatik 14:00etara egongo da zabalik erakusketa; zapatu arratsaldean, omenaldiaren ostetik 21:00ak arte egongo da zabalik, eta domekan, 19:00etatik 20:30era.

2002. URTEAN HIL DIRA BIAK

Simon otsailean hil zitzaigun; Kaxiano Iburguren, berriz, urtaririlean. Bi hilabeteren barruan, hortaz, herriko bi musikari handi galdu zituen Antzuolak, eta orain, omenaldia egingo diete.

Sagastirako transformadorea

Duela pare bat aste eman dizkiete giltzak eskola osteko etxebizitzetako jabeei; Antzuola Udal Etxegintzako hirugarren etxebizitza multzoa ere hasi dira eraikitzen, eta Buztinzuriko etxebizitzetako lanak ere aurrera doaz.

Horren ondorioz, argindar eskaera gero eta handiagoa denez, transformadore berria jarri behar izan du Udalak Sagasti auzoan. Astelehenean jarri zuten transformadorea, eta hura jartzeko, errepidea itxi egin behar izan zuten./A.I.

LABUR

Ordenantza fiskal berriak onartu ditu Antzuolako Udalak

Datorren urtean, ordenantza fiskal berriak indarrean jarriko ditu Udalak, azkeneko osoko bilkuran onartu zutenaren arabera. Zerga hauei dagozkien ordenantzak aldatuko dituzte: ondasun higiezinaren gainekoa, ekonomia jardueren gainekoa, trakzio mekanikoko ibilgailuena, zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarritako daudenak eta jabari publikoaren erabilera pribatu eta aprobezko bidez bereziagatik ordaindu beharrekoak. Salbuespenak salbuespen, %4 igoko dira zergok.

Aurrera doaz Olanan inguruko urbanizazio lanak

Aurtengo otsailaren 5ean inauguratu zuten Olanan etxea, baina inguruko urbanizazio lanak egiteko denbora luzeagoa behar izan dute. Dena dela, aurrera doaz lan horiek; azkeneko astean, esate baterako, etxearen ingurua txukuntzen ari direla ikusi dugu.

Lurra ekarri eta lorategia izango dena prestatzen ari dira Udaleko arduradunak. Horrela, poliki-poliki dotore geratzen ari da Olanan bera, baita inguruak ere.

Domekako zinema emanaldia bertan behera laga dute

Oraingo aste bukaeran ez da zinema emanaldirik egongo Olanan etxean. Izan ere, Kaxianori eta Simoni egingo dieten omenaldiaren barruan, erakusketa jarriko dute Olanan, eta areto biak erabiliko dituzte erakusketa horretarako.

Hurrengo domekan helduko diete berriro emanaldiei, eta Spiderman filma eskainiko dute, betiko moduan, 16:30ean.





Hasi dute informatika ikastaroa

Herriko erretiratuek hasi dute dagoeneko informatika ikastaroa. Astelehenean, hilak 18, hasi zuten Udaleko Gizarte Ongizateko Sailak antolatutako ikastaro hori. Astelehen, eguazten eta egubakoitz arratsaldero izango dituzte eskolak, bi orduz egunean.

Momentuz, ordenadoreak pixka bat ezagutzen eta Windows eta Word programak erabiltzen ikasiko dute ikastaroan parte hartzen duten ikasleek./A.I.

KIROLA

Gazteen futbol taldekoak fin ari dira aurtengo denboraldian

AINTZANE IRIZAR

Azkeneko partidua 3-2 galdu duten arren, ondo hasi dute denboraldia futboleko gazteenek. Iaz, ezin izan zioten eutsi lehenengo mailari, baina, aurtengoa hobeto ari dira. Hirugarren tokian dago taldea sailkapenean, bederatzia partidutik sei irabazita.

Hasiera ona eman dio gazteen futbol taldeak aurtengo denboraldiari. Bere taldean, hirugarren tokian dago momentu honetan, 18 punturekin, Aretxabaleta Almen liderrak baino lau puntu gutxiagorekin. Eibartarrak taldea, berriz, bigarren tokian dago, 19 punturekin.

Hirugarren tokian egon arren, gainera, bere taldean gol gehien sartu dituen taldea ere bada Antzuolako; bederatzia partidutan 29 gol sartu dituzte antzuolarrak, eta 13 besterik ez dituzte jaso.

Horrela jokatzen jarraitzen baldin badute, berriro lehen mailara igotzeko aukera ere izan dezakete, horixe baita eurek nahi dutena.



Hirugarren postuan dago gazteen taldea, liderrarengandik lau puntura.

ERREGIONALAK, ESKAS

Bigarren erregionaleko taldea ez dabil gazteen taldea bezain ondo aurtengo denboraldian. Bere taldean, bederatzigarren postuan dago; kontuan hartu behar dugu hamaika talde daudela. Lau puntu besterik ez dituzte antzuola-

rrek; Amaiak Bat taldeko liderrak, berriz, hemeretzi puntu dauzka.

Jokatu dituzten zazpi partiduetatik bat besterik ez dute irabazi, bost galdu eta beste bat berdindu dute. Dena dela, partidu bat jokatzeko daukate oraindik.

HERRITARREN HITZA / Gerbasio Legorburu · Txistularia

Kantu zaletasuna

Musika eskolek lan ederra egiten dute herri askotan. Aukera onak daude solfeo eta hainbat instrumentu jotzen ikasteko. Alde horretatik, ez daukagu kezkatzeko motiborik. Hala ere, Antzuola bezalako herri baten, ikusita kanturako zaletasuna zelakoa izan den, eta zaletasun horrek pertsonari ematen dion alaitasuna, mereziko luke zerbait antolatzea herrian, zaletasun horri erantzuteko.

Bi zailtasun ikusten ditut asmo hori bideratzeko. Bata, horretarako prest egongo litzatekeen irakasle baten premia, jakin badakigulako

gure inguruetan ez daukagula aukera askorik. Bigarren kezka da umeak zela bideratu horretara, ezertarako denborarik gabe dabilzala ikusita. Komenigarria litzateke solfeo jakitea, baina ez derrigorrezkoa, ezta gutxiagorik ere. Kantu zaletasunak, nonahi kantatzeko ohitura duenak, berarekin darama halako poz jario edo alaitasun ikutua, eta nik uste dut merezi duela hau aurrera eramateko zerbait



"Kanturako zaletasun handia egon da herrian"

egitea. Orain, Simoni eta Kaxiano Erautzako itsuari omenaldia egitera goazen honetan, merezi du euren gaineko zerbait adieraztea. Simonek solfeo irakatsi zien herrian nahi izan zuten guztiei, eta ez nolana irakatsi ere. Garai hartan, Antzuolako kantoriek, asko izateaz gain, oso ondo abesten zuten, batez ere, elizako koroan abesten zutenek. Solfeo ikastearekin batera, koroan

tiple moduan jarduten zuten; entsegu asko egiten zen urtean zehar eta oso trebatuta irtetzen ziren. 56 urtetan egin zuen lan hau Simonek, eta beste hainbeste urtean izan zen organista parrokiari. Kaxianori ez behar baten ondorioz tokatu zitzaion soinua ikastea, itsu gelditu zen eta. Soinua joz ibili zen herriz herri. Kantari bezala jarraitu zuen gero, eta haren alaitasuna eta kantu berriak jartzeko zuen abildadea hor gelditu dira betiko. Antzuolarroi dagokigunez, azpimarratzekoa da nonahi eta agertzen zuen bere jaioterriari zion maitasuna. Goian izan dezatela atseden biek.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Azaroak 23
15:45: Antzuola-Gazteak (2. erreg.)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako partidua kanpoan jokatu dituzte


EMAITZAK

FUTBOLA

Urki 5 Antzuola 0 (2. erreg.)
Urki 3 Antzuola 2 (Gazteak)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa
Olalde-Oskarbi (infant. eskuz) . . . 18-6
Olalde-Landare (nag. paletaz) . . . 34-35



Z Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrun instalazioak

- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu



Juan Cruz

ARGAZKIAK

Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak

BITXITEGIA

Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokakale

ELGETA / Barikua / 2002ko azaroaren 22a / 119. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Goibeko, Espaloia Kafe Antzokiaren proiektua bertan behera uzteko gertu

OXEL EROSTARBE

Espaloia Kafe Antzokiaren proiektua zelan dagoen eta aurrera eramateko epeen gainean gutun bat bidali zion Udalarari Goibeko Kultura Elkartek. Eta talde eragileak ez du erantzunik jaso. Seriotasun falta dagoela-eta, proiektua uzteko prest agertu dira.

Azken hilabeteotan Espaloia Kafe Antzokiaren proiektua dela-eta Udala izaten ari den jarrerarekin nahiko haserre daude Goibeko Kultura Elkartekoak. Halaxe adierazi diote GOIBEKOKALERI Etor Sarasua eta Iban Retolaza elkarteko talde eragilekoek: "Ilusioz beteriko proiektuari atek zelan ixten zaizkion ikusten ari gara. Tamalez, bai talde eragilekoek zein alboan izan dugun beste zenbait jendek Udalaren ganora falta nabaria sumatzen dugu. Elkarte bezala batzarrak ez du erabakirik hartu. Udalak horrela jarraitzen badu, ordea, zer egin pentsatu beharko dugu".

Talde eragiletik idatzitako gutun bati Udalak erantzun ere ez ei dio egin: "Aspertuta gaude! Beti eutsi izan diogu elkarrizke-



Gauzak aldatu ezean, Goibeko Kultura Elkarteko batzar orokorra deituko du talde eragileak, zer egin erabakitzeko.

tari, baina oraingoan, ilusioek behea jo dute. Urriaren 9an, gutun bat idatzi genien alkateari eta kultura teknikariari. Bertan, proiektuaren gainean genituen

zenbait zalantza eta galdera zerrendatu genituen. Hilabete eta erdi daramagu erantzun simple baten zain, eta ez dugu ezer ere lortu. Patxi Basauri alkateak dena

dauka geratuta, eta egoera tamalgarriraino jarraitzen du Espaloia aretoak. Gure iritziz, bai guri bai herriari ere Udaleko alderdi biek duten proiektua azaldu beharko

"Hilabete eta erdi daramagu erantzun simple baten zain, eta ez dugu ezer ere lortu"

ligukete. Zer jarraitu behar dugu, egoera txarrean antzezlanak ikusten? Argi barik? Eserleku barik? Baldintza minimo barik? Lotsagarria da gure herrian dagoen kultura politika!".

BATZAR OROKORRAK ERABAKIKO DU
Hilabete eta erdi erantzunik jaso barik igaro ostean, itxaroten jarraitu edo proiektua bertan behera uztea hausnartzen ari dira talde eragilekoak: "Talde eragilekoek, pazientzia agortzen hasi zaigu. Udalak ikusi behar du Udalak berak duela Goibekok aretoaren kudeaketa hartzeko interes handiena. Hala ez bada, hor geratuko dira euren areto huts eta hotzarekin! Udalak jarrera horrekin jarraitzen badu, elkarteko bazkideak batu, eta erabakiren bat hartu beharko dugu".



Hillaren 28xan, Hiruki ipuin kontalari taldia

Irakurtzeko zaletasuna bul-tzatzeke kanpaiñaren barruan, Hiruki ipuin kontalari taldiaren *Tota-Noka* lana ikusteko aukera izango dugu datorren eguenian, liburutegixan. Arratsaldeko sei-retan izango da emanaldixa, eta bertan, topikuetatik kanpo daren ipuiñak kontauko dittue. Erretratuan Hiruki taldiaren beste lan bat ikusi geinke. Seguruenik, aurrerago egongo da hori ikusteko aukeria. Kultura batzordiak antolatuko dau ekitaldixa./O.E.

LABUR

Emakumien kontrako indarkerixia salatuko dabe udaletzeko balkoian banderia jarrizaz

Osoko bilkuran hola erabakitta, datorren astelehenian, emakumien kontrako indarkerixia salatuko dau Elgetako Udalak. Izan be, azaruaren 25a emakumiek jasaten daben indarkerixaren kontrako eguna da. Udaletzeko balkoian horren egunorren barri emoten daben banderia egongo da egun osuan.

Elgetan be gertatzen dira emakumien kontrako tratu txarrak. Herritarroi erasotzailliei aurre egittera deittu nahi gaittue.

Potzu septikuak garbitzeko kudeaketak egitten dihardu Baserritarren batzordiak

Potzu septikuak garbitzeko aurrekontuak eskatu bihar dittu Baserritarren batzordiak. Hola, horrek potzuok garbittu nahi daben baserritarrak lehenbailehen emon bihar dabe izena Udalian. Izana zenbat eta ugazaba gehixagok emon, orduan eta merkiagua izango da kostua. Elgetan hamar potzu septiko dare, eta bostek emon da dauke baiezku. Gabon aldera garbittuko dittue putzuok.

IRAKURLIAREN TXOKUA

**ASKATASUNA LORTZEKO
EAJ-REN BIDEA**

Aurreko astean Aranzabal jaunak egiten zizkidan galderei erantzunez eta "zeruko aingeruen" defentsan idazten dut ondorengoa.

Garzonen autoak eta espainiar legedia bete, bai ala ez; autodeterminazioa eta lurraldetasuna, eskubide ala helburu; lehendakariaren proposamena nori zuzenduta, Euskal Herriari ala Baskongaderi; biolentziaren espresio okerrenak norenak, ETArenak edo Ertzaintzarenak;... eztabaida guzti hauek dira ezker abertzaleak etengabe plazaratzen dituenak eta, aurreko idazlanean adierazi nuen bezala, inora ere eramaten ez gaituztenak.

Mendizaletasuneko alegoria eginez, abertzaleok sentitzen dugun askatasun "egarria" asetzeko "mendi" oso handiak diren Espainia, Frantzia eta Europar Batasuna zeharkatu behar ditugu. Eta hori egin ahal izateko ezinbestekoa dugu herri bezala posiblea izan dezakegun bidea ondo aukeratu eta legitimitate demokratikozko "elikagaiez" ondo hornitzea.

EAJk argi dauka ondorengoa eginez bide zuzenetik goazela:

- 1) Biolentzia espresio guztien desagertzea.
 - 2) Lehendakariaren elkarbizitzarako proposamena adostu eta aurrera ateratzea.
 - 3) Euskaldunen borondatea errespetatzea. Iparraldeko, Nafarroako eta, baita ere, Arabako gehiengoarena. Eta badakigu, hauekin autodeterminazio eskubideaz zerbait adosteko, zenbat lan txukun egin beharrean gauden abertzaleok.
- Guzti hori aurrera ateratzeko hobe genuke "zeruko aingeruetan sinistu" eta era demokratikoan jardutea, eztabaida antzuetan ibili eta deabrukeriak egitea baino.
- Indarkeria da handi autoritarioak beti nahi izango duan jolastokia; txikiak, oster, nahiago beharko luke errespetuzko elkarbizitza. Espainolismoa oso eroso dago biolentzia eta autodeterminazioa etengabe nahastuz eta abertzaleok bateratu ezinik ikusten; bakea, elkarbizitza eta demokrazia dira, berriz, askatasuna lortzeko abertzaleok behar duguna.

EDUARDO ZUBIAURRE

ASTEKO GAIA


Datorren urtera arte ez dituzte hartuko autoek abiadura murrizteko neurriak

O.E.

Datorren urtera arte autoak, beti bezala, bizkor igaroko dira gure herritik. Autoek abiadura murrizteko neurriak hartzeak izango duen diru kostua datorren urteko aurrekontuan hartuko du kontuan Elgetako Udalak. Orduan eramango dituzte aurrera lanak.

Autoek herritik igarotzean abiadura murrizteko Diputazioak aurkeztutako proiektua Udalaren eskutetan dago. Une honetan, udal aparejadorea proiektu hori eta Udalak egin duen irisgarritasun proiektua batzen ari da. Datorren urtean, bi proiektuak aurrera eramateko.

Autoen abiadura murrizteko aurrera eramango duten proiektuak zera zehazten du: Salvador kalearen bi irteeretan, zubiaren bi aldeetan, Ostatu aurrean, Arbitrio etxearen parean eta Artekalen semaforoak jartzea. Semafoeroez gain, herriko sarreretan oinezkoen babesguneak jartzea da asmoa. Irisgarritasun proiektuak, berriz, herri osoan ezinduek oztoporik ez izatea du helburu. Proiektu



Datorren urtera arte argi ibili beharko dugu elgetarrok bidea gurutzatzeko orduan.

tu biak batu eta faseka eramango dira aurrera, seguruenik.

Fase horiek zehazteko, lehenbailehen Diputazioko teknikariek in batzarra egitea da Udala-

ren asmoa. Batzar horren ondoren zehaztuko dute fase bakoitzean aurrera eramango diren lanak. Bestalde, hurrengo urteko aurrekontuetan oinezkoen segur-

tasunari garrantzia eman nahi dio Elgetako Udalak. Aurten aurrera eramateko asmoa zegoen proiektuak datorren urtera arte itxaron beharko du.

KIROLA


Xabier Uberak gaur ekingo dio aurtengo DV Txapelketari

O.E.

Jon Bengoetxea eibartarra bikote duela, gaur iluntzean ekingo dio Xabier Uberak aurtengo DV Txapelketari. Azken bi urteotan finala jokatu du elgetarrak, eta aurten ere hori du helburu. Aurrera jarraitzeko, gaur irabaztea ezinbestekoa dute.

Amateurren mailan bikoteka jokatzen den txapelketa garrantzitsuenean onenen artean egon gura dute Xabier Uberak eta Jon Bengoetxeak. DV ez da txapelketa erraza, partidu bakoitza hil edo bizikoa da eta irabazten duenak bakarrik egiten du aurrera. Gaur, 20:00etan, Eibarko Astelena, Erroizenea eta Zapirain izango dituzte aurkari. Hernaniarra eta azkoitiarra Mendiluzeren eta Garziaren aurka irabazita sailkatu dira final-laurdenetarako. Ez dute lehen partidua jokatzearen presiorik izango; hortaz, Uberak eta Bengoetxeak nahiko lan izango dute lehia irabazteko.

DV Txapelketa azken txanpan sartu da, eta pilotari guztien maila nahiko bertsua da. Gaur



Azken bi urteotan DV Txapelketako finala jokatu du Xabier Uberak.

iluntzean edonork irabaz lezake. Aurreko urteetan egoera ez da erraza izan, eta garaile atera da Ubera. Ea gaurkoan ere hala den.

ASTE BUKAERAN, ARGIA FRONTOIAN

Zenbait eskaerari jaramon eginez, aste bukaeretan 17:00etatik

19:00etara frontoiko argia piztea begi onez ikusi du Kirol batzordeak. Frontoia herritarrek erabiltzea da helburua; hau da, umeek eta gurasoek erabiltzea. Proposamenak duen diru gastua dela eta, gai horretan Gobernu batzordeak dauka azken hitza.

LABUR

Azaruaren 29xan, erabilitako olixua batuko dau Mayak

Hillero egiten daben moduan, azaruaren be erabilitako olixua batuko dau Maya ingurumen taldiak. Hortaz, datorren bari-kuan, sukaldietan gordeta daukagun erabilitako olixua eruan biharko dogu plazara. Mayakuak 18:00etatik 19:00etara egongo dira bertan.

Abenduaren 12xan, berriz, energia alternatibuen gaineko berbaldixa izango da liburutegixan. Hain justu, herri mailan energia alternatibua aurrera zelan eruan leiken aztertuko dabe berbaldixan.

Gaur gabian, kontzertua izango da gaztetxian

Bizkaiko hiru musika talderen kontzertua antolatu dabe gaztetxekuek gaur gaberako. 20:30ian hasiko da kontzertua. Bertan, Nabari, Axut eta H₂O taldeen musikia entzuteko aukeria izango dogu.

Oin dala bi aste Elgetako bi taldiekin izan zan giro aparta errepikatzia nahi dabe herriko gaztiak.

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Accion
Catolicako
dantza taldea

Accion Catolicak orain dela 48 urte Zumaian egindako kale bilkura bateko argazkia duzue hau. Bergaran, Santa Marina eta San Pedro parrokiek bideratzen zuten Accion Catolica, eta lokala Komenio kalean zeukaten. Casino elkarte zegoen eraikin berean. Berbaldiak, musika emanaldiak eta bestelako kultura ekitaldiak antolatzen zituzten han. 1954an, Gipuzkoa mailako kale bilkura egin zuten, Zumaian, eta Accion Catolicako dantza taldeko neskak han izan ziren.

Zumaiako portuan zegoen barku batera igota, hauek dituzue argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara: Susana Kintana, Mertxe Ruiz, Nati Pujana, Mari Glori Etxaniz, Vega Biziola, Maria San Vicente (atzerago, zutik agertzen dena), Mari Luz Zurbarano, Maite Suinaga, Pilar Ruiz, Isabel Gallastegi, Manolita Ubierna eta Margarita Ezpeleta.

Argazkia: Maite Suinaga



ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA

Labegaraietako
zubia

Iturrikoa etxea bota aurretiko argazkia duzue ezkerrekoa, Udal Agiritegian jasotako datuen arabera etxe hura 1955ean bota zuten-eta. Gaur egun, Iturrikoa izenarekin bidegurutzean dagoen etxea ezagutzen da. Iturrikoa etxearen eta zubiaren artean dagoen soroa Balento baserrikoa zen, eta Conde del Valle zen jabea. Alboko bi argazkien artean, gutxi gorabehera, 50 urteko aldea dago.



≈1950 Labegaraietako zubia, 50eko hamarkadan (Begarako Udal Agiritegia. Pilar Larrañagak utzitako argazkia).



2002 Agirrebeña jatetxe bakoitzeko balkoietatik atetarako argazkia. Eskuinaldean, Cerrajerak 60ko hamarkadan eraikitako etxeak.



Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitriloak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

AZKEN
JOERA
GUZTIAK

ZABALIK
ZE HARO
BERRITUTA

Irala 5 BERGARA 943 76 24 88



IGARZA
MERTZERIA ETA LENTZERIA

GATZA ETA
BERAKATZA...

Gertuko sukaldea
gertu-gertutik!

Egunero,
13:30ean, 16:00ean,
19:45ean eta 21:45ean

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko
duzu!*



Edozein egoera menderatzen
lagunduko dizun auto batekin amets egiten duzu?

Vectra berria orain, 16.500 €-tik aurrera.



Opel Vectra berria

Xasis berria Gidatzeko Sistema Interaktiboarekin (IDS), non direkzioak, frenoak eta esekidurak elkarrekin lan egiten duten errepidearen kontrol osoa lortzeko. Vectra guztiz berritua, Ecotec balbula anitzeko motor gama berritzailearekin: 2.2 DTI / 125 ZP edo 3.2 V6 / 211 ZP edo potentzia handiko motorra duen GTS bertsioa.



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

*Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria Penintsulan eta Balear Uharteetan Vectra Club 1.8 16 V modeloan. Hau guztia bane: garraioa, BEZa, matrikulazio zerga, Prever Plano eta berria ez den ibilgailuen akzioa. Hil bukaera arteko promozioa. Iragarkian agertzen den modeloa ez da eskaintzen dena.

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA

www.giauto.es